

Haurrekin ordularia egin hamabi zenbakiekin eta orratz batekin, egunero erabiltzeko.



ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

Antonimoak

bete/hustu	botzik ¹ /triste
oroitu/ahantzi	nigarrez/irriz
sartu/atera	handi/tipi
joan/etorri	¹ pozik

Ari izan aditz-lokuzioa.
Egon aditz trinkoa.
nor eta nor-nork indikatiboan.
– Mikel sartu da.
– Xantik zakua hustu du.
– Maider botzik dago / triste dago / nigarrez ari da.

Domino jokoa

botzik/triste, joan/etorri, sartu/atera... irudi batzuen bidez adibide horiek itxuraturik eman eta domino edo kate joko bat egin aurkakoak juntaraziz.

Mintza jokoa

Bete/hustu, sartu/atera, botzik/triste... esaldi luze baten osagailu izan daitezke : adib. – Maider sartu da ikasgelan, hustu du bere zakua mahai gainean eta botzik jarri da bere jargian. Ikasleek esaldi bera eman behar dute, hitz antonimoak erabiliz.

012345678910

Zenbakiak

bat	bost
bi	sei
hiru	zazpi
lau	zortzi...

Zenbaketa (lehen jokoa)

Irakasleak zenbaki bat erraten du eta ikasleek galdetu bezainbat erhi erakutsi behar dute. Gauza bera alderantziz : ikasleak bere ikasle lagunei galdetuz.

nor-nork aginteran.
– Erakuts ezazu : hiru.

Zenbaketa (bigarren jokoa)

Irakasleak zenbaki bat botatzen du eta ikasleek kopuru horri dagokion bezainbat gauza ekarri behar dute. Gauza bera alderantziz : ikasleak bere ikasle lagunei galdetuz.

nor-nork indikatiboan eta aginteran.
– Erakuts ezazu : hiru.
– Erakuts itzazu hiru erhi.
– Ekarri dut/ditut...

Zenbaki bat gorde

Irakasleak hamar arte kondatzen du eta erabakitzen du ikasleekin zenbaki baten baztertzea. Kondaketa egin daiteke denak errondan (aldizka ikasle bakoitzak eman behar du egokia den zenbakia). Huts bat egiten duen haurra kanporatua da.

Kondaketa mutuaren jokoa

Irakasleak : « bat, bi, (isilik), bost, sei, (isilik), zortzi... » Ikasleek bete behar dituzte isiluneak zenbaki egokiak erranez.

nor-nork indikatiboan.
– Ahantzi dut/duzu/dugu : hiru.